



DONOSTIAKO HONDARTZETAKO INGURUMEN POLITIKA

Donostiako Udala udalerrri mailako erakunde publikoa da eta, horregatik, agintzen du Donostiako hondartzetako ingurumen-portaera hobetu egingo duela, gizartearen garapen eramangarria bermatzeko asmoz.

DONOSTIAKO UDALAK hondartzen kudeaketari dagokionez duen konpromisoa jarduketa-ildo hauetan gauzatzen da:

- Arauetan ezarritako ingurumen-eskakizunak eta bete beharreko gainerako eskakizunak ere une oro hondartzen gestioan beteko direla ziurtatzea.
- Helburuak ezartzea eta horiek lortzeko baliabideak jartzea, aldiari-aldiari aztertu eta eguneratuta, Udalaren ingurumen-portaera etengabe hobetzen dela ziurtatzeko eta kutsadura prebenitzeko.
- Udalak hondartzetan zuzenean nahiz esleipendunen bitartez egiten dituen ekintza guztietan ingurumenari loturiko alderdiak aintzakotzat hartzea, ingurumena hobetzeko eta Udalaren lanak ingurumenean duen eragina murrizteko garrantzi handia du eta.
- Baliabide naturalak aurrezten saiatzea, erabiltzaileak ura zentzuz erabiltzeak duen garrantziaz jabetu daitezen bultzatuz eta hondartzetan gaikako hondakinen bilketa sustatuz.
- Udal langileek eta hondartzekin erlazioaturiko erakundearen politika, helburuak eta betebeharrak ezagutzeko eta ulertzeko moduko prestakuntza- eta komunikazio-planak antolatzea, erantzukizun-printzipioa ezarriz, hastapen horren arabera langile eta kontratista oro ingurumen-gaien arduradun da, bere lanaren osagai moduan.
- Hondartzen erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzea kanpainan, web orriaren, postontzien eta egokitutako beste edozein bideren bitartez.

Ingurumen-politika hori DONOSTIAKO hondartzetako jarduera eta zerbitzu guztietan aplikatuko da, edozein dela ere horien funtzionamendua (ohikoa, ezohikoa edo larrialdikoa).